

ELAREN PROPOSAMENA

PROZESUA GELDITU ETA EZTABAIDA SOZIALARI EKIN

1.- Prozesua gelditzea eta eztabaida sozialari ekitea.

Aurkeztu den proiekturako ez dituzte kontutan hartu ez langileak, ez sindikatuak, ez arabako gizartea. Gauzak horrela, nabaria da beharrezkoa dela eztabaida sozialarekin hasia, gaiak ukitutako eragile guztiok ekarpenak egiteko aukera izan dezagun, arabako osasun publikoa indartzeko helburuarekin.

Oraingo, proiektua bidezkozteko erabili diren argudio bakarrak zerbitzuak bikoiztuta egotea eta gaixo kronikoei ematen zaien arreta ez aproposa izan dira (askoz gehiago direnean Araban behar diren zerbitzuak). Era berean, ez da argudiatu hain garrantzia handiko gastu bat egitea ezinbestekoa denik, aukera guztien artean konponbide onena izateagatik. Azken finean, elkarriketa beharrezkoa da gaur egungo egoera sakonean ezagutzeko eta berrantolatze proiektu egokiena adosteko.

2.- Santiago Ospitaleko eraikinak ez lagatzeko konpromisoa, nahiz eta jasotzailea tokiko administrazio publikoa izan. Izan ere, konpromiso hori izango baita espekulazio urbanistikoari ateak zabalduko ez zaizkiola bermatzeko bide bakarra.

Erabat kontrari gaudela Santiagoko 3 eraikinetatik bi osasun-sarean ez mantentzeko alde aurretik hartutako erabakiarekin; jadanik gaur egun, beharizan konkretuak egon badaudenean horiek erabili ahal izateko.

Informazioa eskatzen dugu, Santiago ospitaleko eraikinen gaur egungo titulartasun eta kalifikazioari buruz eta, kasua balitz, birkalifikazio planei edota helburu antzekoak jasotzen dituzten erakunde publikoekin egindako akordioei buruz.

3.- Probetxua atera behar zaie Santiago Ospitalean egindako lanei gastu hori amortizatzen, nahiz eta aukera horren ondorioz lekualdatzeak atzeratu behar, edota bertan behera utzi behar.

Santiagon azken 3 urteotan 10.4 milioi euroko gastua suposatzen duten inbertsioak egin dira. Gobernu berri batek ez luke gutxietsi behar Santiago Ospitalea hobetzeko gure poltsikoetatik irten den diru guztia, aurreko gobernuak egindako proiektuak direlako bakarrik.

4.- Baliabide eta zerbitzu gehiago.

ELAn behin baina gehiagotan salatu dugu ez direla behar beste baliabide ekonomiko bideratzen osasun publikorako; Europako batz-betekotik oso hurrin gaudela. Honen ondorioz, ez dira nahikoak ez langile kopurua, ez baliabide materialak ez eta eskainitako zerbitzuak ere. Gainera, Eusko Jaurlaritzako osasun sailak ez du inolako momentuan planteatu aurkeztutako berrantolatze proiektuak aurre egingo dienik Arabako osasun publikoak dituen arazo nagusiei. Hauek lirateke:

- Sare pribatuarekin itunak (kontzertazioa): ahalik eta gutxienak izan beharko lukete.

Azken urteotan Araban eman diren itunei buruzko datuak bidaltzea eskatzen dugu, zerbitzuka bananduta eta kopurua gutxitzeko proiektuak zein neurri konkretu hartuko duen zehaztuz.

- Autokontzertazioa: ahalik eta gutxien izan beharko luke. Azken urteotan Araban eman diren autokontzertazioari buruzko datuak bidaltzea eskatzen dugu, zerbitzuka bananduta, zenbat langilek egiten duten zehaztuta eta kopurua gutxitzeko proiektuak zein neurri konkretu hartuko duen zehaztuz.

- Pribatizazioak: berrantolaketa prozesu orok berekin batera ekarri beharko luke gaur egun pribatizatuta dagoen eta osasun arlokoa den zerbitzu oro publikora itzultzeko erabakia, adib. Osatek-eko erresonantzia magnetikoa, Medical Dom...; baita arropa garbiketa bezalako zerbitzu osagarriak ere.

- Osasun zerbitzuak: zerbitzu gehiago eman beharko lirateke, jadanik gaur egun arabarrek eskatzen dituztenak eta ez direnak aurkeztutako proiektuan aipatzen. Adib: geriatría, prebentzio ginekologikoa, errehabilitazio integrala, haurdunaldiak etetea gaur egungo legerian aurreikusitako kasu guztietan, bihotzeko kirurgia, aho eta hortzen osasuna...

- Lehen arreta: arreta zerbitzua hobetzeko beharrezkoa da aldi berean lehen arretako sare eraginkor bat ezartzea. Modu horretara, bermatuta geratu dadin proiektu honek edota etorkizuneko 'centro sanitario de servicios multicanal' delakoak ez dutela lehen arretako sarea ahultzeko helburua, ezta bertako langile kopurua gutxitzekoa ere.

5.- Langileak eta euren lan baldintzak mantenduko direla bermatu egin behar da, eta euren hobekuntza landu.

Langile kopurua handitzeaz gain, bermatu behar da Arabako ospitaletako egungo plantiletan ez dela aldaketarik egingo, eta horien lan baldintzak mantenduko direla. Aldi berean, funtsezkoa da ere, berrantolatze proiekturik abian jartzekotan langileentzako hainbat zerbitzu ere ezartzea, gaur egun ez daudenak eta oso beharrezkoak direnak, adib. aldagelak, haurtzaindegiak...

Erabat ezinbestekoa al da fusioa Arabako asistentzi kalitatea hobetzeko? Proiektu honek bere egiten al du proportzionaltasun irizpidea egiten den gastuaren, bilatzen den hobekuntzaren eta sor-tzen den kaltearen artean?

Ondorio modura, datuak ematen ez zaizkigun bitartean eta atal bakoitzean azaldutako zentzuan konpromiso ofizial irmorik hartzen ez den artean, ELAn langile guztien interesen alde eta guztiontzako osasun publiko kalitatezko baten alde lan egiten jarraituko dugu.